



**2018KO MARTXOAREN 27KO**  
**OHIKO OSOKO BILKURA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hemezortziko martxoaren hogeita zazpian, arratsaldeko zazpitan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean, ohiko batzarraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Ane Irastortza Izagirre, Aitor Altuna Oiarbide, Begoña Bueno Barranco, Iñaki Estensoro Sarasola, Amagoia Naldaiz Mingo, Jaber Arrasate Aierbe, Azeari Andonegi Beristain, Marian Zufiria Apeztegia, Imanol Aran Barandiaran, Leire Mendia Arana eta Urtzi Iruin Arruti.

Bere ezin etorria adierazi du Ioseba Hernandez Madinabeitia zinegotziak.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

Alkateak, bilkurari hasiera eman ondoren, esaten du eguneko gai zerrendan ez dagoen "Kataluniaren inguruko adierazpen instituzionala" egitea adostu dutela udala osatzen duten bi talde politikoez eta hau galdera erreguen aurretik sartuko dela eguneko gai zerrendan.

**I.- AURREKO AKTA.-**

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkezten da 2018ko otsailaren 27an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

**II.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.-**

Ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatezaren Ebazpenen berri ematen du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

**III.- 2017KO AURREKONTU LIKIDAZIOAREN BERRI EMATEA.-**

Alkatearen aginduz idazkari-kontu hartzaileak 2017ko aurrekontuaren likidazioaren azalpena egiten du, likidazioaren datu esanguratsuenen azalpena eginez.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

**IV.- 2017KO LIKIDAZIOAREN INGURUAN, 1/2013 FORU ARAUAREN 5. ARTIKULUAREN 3. PARAGRAFOAN AURREIKUSITAKO KOMUNIKAZIOA UDALBATZARI.-**

Udal honek onartutako 2017ko aurrekontu likidazioak 2017rako ezarritako gastu araua ez du betetzen eta ez betetze hori diruzaintzako gerakina erabiltzearen ondorioa da.



Hau honela, eta 2013ko otsailaren 8ko 1/2013 Foru Arauaren 5.3 artikuluan aurreikusitakoa ikusita, horren berri emanek komunikazioa egiten zaio osoko bilkurari eta komunikazio horri kontu hartzailearen txostena eranstean zaio.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

#### V.- KREDITU GEHIGARRI BIDEZKO 2 ZBK.DUN KREDITU ALDAKETA.-

Udal honetako aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedienteak irakurri dira.

Idazkari-Kontu hartzaileak egindako txostenak dioenez, aipatutako espedienteak aplikagarria zaion araudiari egokitzen zaio, eta zehazki Udal Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 34. artikuluan ezarritako beharrezkoak eta tramiteei.

Era berean, Ogasun Batzordeak egindako aldeko txostena eta onespenez proposamena irakurri dira.

Kreditu aldaketa honen partida garrantzitsuenak Kiroldetgia handitzeko ekintzen proiektuaren idazketa egiteko eta San Benito Ikastolako berokuntza sistema aldatzeko lanak aurrera eramateko hurrenez hurren jartzen diren 140.000 eta 102.850 euro dira.

Andonegi zinegotziak (EH Bildu) esaten du beharrezkoa ikusten dutela ikastolaren beharren inguruan eta hauei eman beharreko irtenbideen inguruan gogoeta egitea, eta plangintza egin ondoren burutzea proiektuak. Horregatik, eta hori egin arte, hau bertan beharrezkoa eskatzen dutela.

Alkateak erantzuten dio esanez burutu nahi den proiektu hau ez dagoela gogoeta horretatik kanpo eta bai ikastolak bai udalak egin duten plangintzaren barruan dagoela. Gertatzen duen batak ez duela bestea oztopatzen eta orain egitea planteatzen bada ikastolaren funtzionamenduari ahalik eragin txikiena egin diezaion egiten dela.

Azearik esaten du beraien proiektuaren berri izan dutela baina plangintza horien informaziorik ez dutela.

Hau honela, gaia bozketan jartzen da eta Osoko Bilkurak, aldeko 7 boto (EAJ) eta aurkako 5 botoz (EH Bildu), honako erabakiak hartzen ditu:

**Lehenik.-** Udal honen aurtengo ekitaldiko Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko 2 zbk.dun kreditu aldaketarako espedienteak onestea, proposamenaren eta ondoko kapituluakako laburpenaren arabera:

#### **KREDITU GEHIKUNTZAK**

<b>Kapitulua</b>	<b>Izena</b>	<b>Gehikuntzak</b>
VI	Inbertsio errealak	500.000,00 €



<b>GEHIKUNTZAK GUZTIRA</b>	<b>500.000,00 €</b>
----------------------------	---------------------

**FINANTZATZEN DITUZTEN BALIABIDEAK**

<b>Kapitulua</b>	<b>Izena</b>	<b>Zenbatekoa</b>
VIII	Finantza aktiboak	500.000,00 €
<b>GUZTIRA</b>		<b>500.000,00 €</b>

**Bigarren.**- Jendurrean ikusgai jartzea, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin betikotzat joko da. Espediente honi Aurrekontu Orokorra onesteko ezarritako gainerako tramiteak eman beharko zaizkio.

VI.- KATALUNIAREN INGURUKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALA.-

Adierazpen instituzionalak honela dio:

- 1.- Lazkaoko Udalak bere kezka eta erabateko gaitzespena agertzen du lehengo ostira-lean, martxoak 23, Auzitegi Gorenak agindutako Carles Puigdemonten atxiloketa eta Jordi Turull, Carme Forcadell, Raul Romeva, Josep Rull eta Dolors Bassaren kartzelaratzeen aurrean. Salbuespeneko neurri hauek, lehendik badaezpadako kartzelaratzea jasaten ari diren Oriol Junqueras, Joaquin Forn, Jordi Sanchez eta Jordi Croixatenari gehitzen zaizkie eta hauek ere salatzen ditugu, oinarritzko printzipio demokratikoak urratzen dituztelako.
- 2.- Lazkaoko Udalak, herritarrek hautatutako karguen segidako kartzelaratzea salatzen du. Hauei, beraien eskubide politikoen jarduna ukatzen ari zaizkie, Jordi Sanchezen kasuan Nazio Batuetako Giza Eskubideen komiteak agerian utzi duen bezala. Era berean bere egiten du, berealdiko kezkaz, epaitegietako jarduketa hauekiko "Amnistia Internacional"en balorazio kritikoa, egozten zaizkien karguak gehiegizkoak, eskatzen zaien baldintzarik gabeko badaezpadako kartzelaratzea neurritz kanpoko eta auziperatze modua salbuespenekoa direla kontsideratzen duelako.
- 3.- Lazkaoko Udalak bere laguntza eta elkartasuna agertzen dio atxilotu eta kartzelaratutakoei, beren sendiei eta partaide direneko gizarte erakunde eta erakunde politikoei, eta baita ere kataluniar gizarte osoari, beraien berehalako askatasuna exijituz.
- 4.- Lazkaoko Udalak bere ezinegona adierazten du Katalunia bizitzen ari den sakoneko desadostasun politiko eta blokeoaren aurrean. Konstituzioaren 155 artikuluaen aplikazio bidegabe baten bidez, kataluniar herritarrei beren burua gobernatzeko duten bidezko eskubidea kendu zaie eta President bat izendatzeko zailtasunak ulertezinak dira. Gehiago oraindik, herritarrek, beren eguneroko arazoetaz arduratuko den ahalmen guztiak dituen Gobernu bat behar duenean.

5.- Lazkaoko Udalak, egoera desblokeatu, gatazka mailaz jaitsi, 155 artikulua aplika-  
zioa kendu eta joan den abenduaren 21ean hautestontzietan azaldutako herritarren  
borondatea oinarritzat hartuta, Kataluniako instituzioen funtzionamendurako normali-  
tate demokratikoa berreskuratzeko, Kataluniako eragile politiko eta gizarte eragileen  
arteko elkarrizketa zintzo, barneratzailea eta berehalako batetarako enplazamendua  
egiten du berriro.

#### VII.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du,  
iluntzeko zazpiak eta hogeita hamaika direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta  
ziurtatzen dudalarik.

